

MUGIKORTASUNA AZTERTZEN



Eskolako Agenda 21

DBH.I. zikloa



Gelaka banatuta mugimendu handia dagoen herriko hainbat puntu aztertuko dituzue. Horretarako, **ordu erdian** puntu horietan pasatzen diren ibilgailuak naiz oinezkoak kontatuko dituzue. Puntu bakoitzean norabide ezberdinak daudenez, taldeka banatu eta talde bakoitzak norabide bakoitzean pasatzen diren autoak, kamioiak, autobusak, motoak, oinezkoak... kontatuko ditu.

Hor dituzue jaso beharreko datuak:

| GARRAIOBIDEAK | KOPURUA | LAGUN-KOPURUA |
|--------------------------------|---------|--|
| Kotxeak | | |
| Motoak | | |
| Autobus handiak (*) | | <input type="checkbox"/> Beteta: <input type="checkbox"/> Erdi beteta <input type="checkbox"/> Hutsa |
| Autobus txikiak (*) | | <input type="checkbox"/> Beteta: <input type="checkbox"/> Erdi beteta <input type="checkbox"/> Hutsa |
| Errepidetik doazen bizikletak | | |
| Bidegorritik doazen bizikletak | | |
| Kamioiak | | |
| Espaloitik doazen oinezkoak | | |
| Bidegorritik doazen oinezkoak | | |

(*) **Autobus handiak:** **beteta** (50 lagun), **erdi beteta** (25 lagun), **hutsa** (lagun bat)

(*) **Autobus txikiak:** **beteta** (25 lagun), **erdi beteta** (10 lagun), **hutsa** (lagun bat)



MUGIKORTASUNA AZTERTZEN

Datu bilketa egin ondoren, gelakide guztion emaitzak batuko dituzue, hau da, alde batetik, norabide guztietan pasatu diren autoak; bestetik, kamioiak; bestetik, autobusak... eta dena batuta duzuenean **Google docs**-en zintzilikatuko dituzue datu horiek. Bertan, baduzue taula bat, eta hori osatu beharko duzue. Taula osatu ondoren automatikoki grafiko bat aterako zaizue. (2004an jasotako datuekin konpratu nahi izanez gero, Google docs-en zintzilik dituzue.

Grafikoaren arabera, aztertu duzuen puntu horren balorazioa egingo duzue, eta **Google maps**-en puntu hori aurkitu eta berak daukan ikonoari kolorea aldatuko diozue, hau da:

- 2004an egindako diagnostikoan oinarrituz, puntu hauei alternatibaren bat eman bazaio eta horren ondorioz egoera hobetu bada, edo egoera ona bazen eta mantentzen bada, kolore **berdea**.
- Egoera erdipurdikoa bada edo zertxobait hobetu arren antzekoa bada, kolore **horia**.
- Egoera nabarmen txarra bada edo txarra berdin mantentzen bada, kolore **gorria**.

Guztionean, eta herri guztiko puntuak margotuta daudenean, ondorengo galderei erantzun:

- Orokorrean nola mugitzen da jendea?

.....
.....
.....

- Hartu dituzuen datuak kontuan izanik, zein motatako garraiobideak dabilta gehien?

.....
.....

- Aurrera begira, zerbait egin al dezakegu garraio pribatua gutxiago erabiltzeko?

.....
.....

- Zerbait egin al dezake Udalak egoera hobetzeko?

.....
.....

- Zuek zer proposatzen duzue?

.....
.....